

## **EAJ – PNVK DEITORATU EGIN DU EH BILDUK ETA ELKARREKIN- PODEMOSEK PINONDO ETXEA IXTEA ERABAKI IZANA, BERTAN INBERTITU ORDEZ**

**Talde jeltzalearen ustez, erabaki okerra da Pinondo Etxea birmoldatzeko aurreikusitako partidak premiazkoak ez diren beste erabilera batzuetara bideratzea**

**EAJ-PNVk proposatu du 220.000 euroko inbertsioari eustea eta 2021eko aurrekontuan 860.000 euroko partida bat sartzea, eraikinaren birmoldaketa osoa egiteko.**

*Durangon, 2020ko uztailearen 22an.* Durangoko EAJ-PNV taldea kritiko agertu da gaur EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-Herriaren Eskubidea-Independienteeek osatutako koalizio taldeak Pinondo Etxerako aurreikusitako inbertsioa baztertu eta eraikina ixtea erabaki dutelako.

Gobernu-taldeak 220.000 euroko partida bat onartu zuen Pinondo Etxea birmoldatzeko 2020ko aurrekontuan. Partida hori esku hartzeko lehen fasea gauzatzeko aurreikusita zegoen, eta, eskura dauden txosten teknikoen arabera, "egungo erabilerak behin-behinean mantentzea ahalbidetuko luke, eta hurrengo faseetan jarduten jarraitu beharko luke egiturazko finkapen osoa gauzatzeko".

Hala ere, gauetik goizera, EH Bilduk eta Elkarrekin-Podemos/Herriaren Eskubidea/Independienteak gobernu taldeek, elkarteekin kontsultatu gabe eta aldez aurretik abisatu gabe, aldekarrez erabaki dute Pinondo birgaitzeko plangintza bertan behera uztea, eraikina ixtea eta birmoldaketarako aurreikusitako 220.000 euroak hain premiazkoak ez diren beste gastu batzuetarako erabiltzea.

Inbertsio hori ezabatzeko honako argudio hau eskaini da: "Eraikinaren egiturazko finkapen globalerako birgaitzeak behar duen inbertsioa erabilgarri dagoen kopurua baino askoz handiagoa da". EAJ-PNVren ustez ordea, erabaki hori ez dago justifikatuta, hasiera-hasieratik aurreikusi baitzen Pinondoren birmoldaketa faseka egitea. "Ez dugu norabide aldaketa hau ulertzen. Kezkatu egiten gaitu gobernu-taldeak hain gai garrantzitsuan bere kabuz iritzia aldatu izanak, elkarteekin ere kontatu gabe eta elkarteentzako alternatibarik aurreikusi gabe. Pinondok, hamarkadetan zehar, gizarte-etxe gisa oso funtzio garrantzitsua bete du, hainbat elkarte eta udal zerbitzuri babesa emanez. Gure ustez, funtsezkoa da gizarte-etxearen eta Durangarren topalekuaren funtzio hori bizirik mantentzea, horretarako beharrezkoak diren inbertsioak eginez. Gainera, eraikinak alde zaharrea duen kokapen estrategikoa azpimarratu nahi dugu, eta horrek balio handia ematen dio gizarte-etxe gisa eta durangarren topaleku gisa. Horregatik uste dugu Pinondo Etxea estrategikoa dela eta bizirik mantentzeko beharrezko inbertsioak egitea eskatzen dugu."

**IMPULSANDO  
DURANGO  
HERRIGINTZAN**



Horrela, talde jeltzaleak "aurreikusitako **220.000 euroko inbertsioari eusteaz gain, 2021eko aurrekontuan 860.000 euroko partida bat sartzea**" proposatu du gaurko osoko bilkuran, "Pinondo Etxeko eraikinaren birmoldaketa osoa egiteko".

Era berean, EAJ-PNV kezkatuta agertu da orain arte Pinondo Etxea erabili duten elkarteak oraindik ez dituztelako beste inon kokatu. "Hilabete igaro da euren egoerari buruzko azalpenik eta konponbiderik eman gabe".

## **EAJ – PNV LAMENTA QUE EH BILDU Y ELKARREKIN-PODEMOS OPTEN POR CLAUSURAR PINONDO ETXEA EN VEZ DE INVERTIR EN ÉL**

**El grupo jeltzale considera erróneo el planteamiento de destinar la partida prevista para remodelar Pinondo Etxea a otros usos menos urgentes**

**EAJ-PNV propone mantener la inversión prevista de 220.000 € e incluir una partida de 860.000 € en el presupuesto de 2021 para llevar a cabo la remodelación íntegra del edificio**

*Durango, 22 de julio de 2020.* El grupo municipal EAJ-PNV de Durango se ha mostrado hoy crítico con la **decisión unilateral del equipo de coalición formado por EH Bildu y Elkarrekin Podemos-Herriaren Eskubidea-Independienteak de descartar la inversión prevista para Pinondo Etxea** y optar por el cierre del edificio.

El equipo de gobierno aprobó una partida de 220.000 euros destinados a la remodelación de Pinondo Etxea en el presupuesto de 2020. Dicha partida estaba prevista para llevar a cabo la primera fase de intervención que, según los informes técnicos disponibles, “permitiría mantener los usos actuales de manera provisional, debiendo seguir actuando en siguientes fases consecutivas para llevar a cabo la consolidación estructural completa.”

Sin embargo, de la noche a la mañana, sin consultar con las asociaciones y sin previo aviso, EH Bildu y Elkarrekin-Podemos/Herriaren Eskubidea/Independienteak han decidido de manera unilateral abandonar la planificación de rehabilitar Pinondo, clausurar el edificio y destinar los 220.000 euros previstos para su remodelación a otros gastos menos urgentes.

La argumentación que se ha ofrecido para eliminar dicha inversión es que “la rehabilitación para la consolidación estructural global del edificio supera en mucho la cantidad disponible”.

EAJ-PNV por su parte considera que esta decisión no está justificada, ya que cuando el equipo de gobierno decidió incluir la inversión de Pinondo en los presupuestos de 2020, ya sabía que la remodelación se debía ejecutar por fases y que la cuantía necesaria para su culminación era superior a los 220.000 euros presupuestados para este año. “No entendemos este cambio de rumbo. Nos preocupa que el equipo de gobierno haya cambiado de opinión de manera unilateral en un asunto tan importante, sin haber contado siquiera con las asociaciones y sin tener prevista una alternativa para estas. Pinondo ha cumplido durante décadas una importantísima función de casa social, dando cobijo a numerosas asociaciones y a diversos servicios municipales. Además, queremos subrayar la localización estratégica del edificio en pleno Casco Viejo, lo que le confiere un valor como casa social y lugar de encuentro para los y las duranguesas. Por ello consideramos que Pinondo Etxea es estratégico y solicitamos que se realicen las necesarias inversiones para mantenerlo vivo.”

De este modo, el grupo jeltzale ha planteado en el pleno de hoy la “necesidad no sólo de **mantener la inversión prevista de 220.000 euros, sino de incluir una partida de 860.000 € en el presupuesto de 2021 para llevar a cabo la remodelación íntegra del edificio de Pinondo Etxea.**”

Así mismo, EAJ-PNV se ha mostrado preocupado porque las asociaciones que han venido utilizando Pinondo Etxea hasta ahora aún no han sido reubicadas en ningún otro espacio. “Ha pasado ya un mes sin que se les haya dado ni explicación, ni solución a su situación”.